

# I. BERDINTASUN PLANA





enero-berdintasuna, emakumeek eta gizonek gizartearekiko daukagun konpromisoa da. Ezinbesteko baldintza baita gizarte bideragarrigoa, bidezkoagoa eta garatugoa lortu ahal izateko.

- NNBB - Garapen sustengarrirako helburuak




## BASTIDA IKASTOLAKO BERDINTASUN BATZORDEA

IZEN ABIZENAK	ORDEZKARITZA
<b>Maria Amurrio Barroeta</b>	Lehendakaria
<b>Naroa Izurza Arejita</b>	Langileen Ordezkarri Legala
<b>Jesús María Bedialauneta Mugartegui</b>	Zuzendari Pedagogikoa
<b>Saioa Guerricagoitia Labarga</b>	LH-ko Koordinatzailea
<b>Leire Unceta Zaballa</b>	HH-ko koordinatzailea

### FUNTZIOAK

- Erabaki gunea maila teknikoan (eztabaida eta adoste gunea).
- Prozesuaren diseinu, planifikazio eta garapena.
- Prozesuaren inguruko komunikazioa bermatzea, langilego guztiari heleraziz.

## I. BERDINTASUN PLANA



### 7.1. BERDINTASUN PLANAREN HELBURU OROKORRAK

- Bastida Ikastolan I. Berdintasun Plan honen bitartez abiatutako prozesuari jarraipena ematea, bertan agertzen diren lan ildo, helburu eta ekintzen garapenarekin emakume eta gizonen arteko berdintasunaren bidean urratsak ematen jarraituz.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna ikastolaren kudeaketaren eta estrategiaren ardatz bilakatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren bidean lorpenak eman daitezen beharrezkoa den zeharkakotasuna bermatuz.
- Hezkuntza arloko zein inguruko entitateei begira emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erreferentzia bezala kokatzea.
- Eguneroko hezkuntza jardueran berdintasun ikuspegia erabat eta sistematikoki txertatzea.

# I. BERDINTASUN PLANA



## BERDINTASUN ERAKO NEURRI OROKORRAK

01

### HELURU OROKORRA

Bastida Ikastolaren I. Berdintasun Plan honetan aurreikusten diren lan ildo, helburu eta ekintzen garapenerako beharrezkoak diren baliabideak (materialak eta pertsonalak) ezartzea, entitatearen berdintasun kotak bermatzeko.

### Helburu zehatza 1

Bastida Ikastolaren estrategia orokorrean eta kudeaketan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen jarraitzea.

### Ekintzak:

- 1.1.-Emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasunarekiko Bastida Ikastolako **zuzendaritzak duen konpromisoa** ezagutzera eman.
- 1.2.-I. Berdintasun Planaren diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioaren koordinaziorako prozesu honetan sortutako **berdintasun batzordea mantendu** eta bere jarduerara modu egokian burutu ahal izateko **baldintzak bermatu** (bilera orduak, formakuntzak, baliabideak...).
- 1.3.-Berdintasuna **entitatearen estrategia orokorrean** barneratzea, langilegoaren asebetetze mailaren adierazleen artean txertatuz.
- 1.4.- Enpresetako Berdintasun Planak erregulatzen dituen 901/2020 dekretuaren jarraibideak kontuan hartuz, I. Berdintasun Planaren **erregistroa (REGCON)** burutu.

---

## Helburu zehatza 2

**Bastida Ikastolaren I.Berdintasun Plana ezagutzera eman eta bertan aurreikusitako lan ildoak, helburuak eta ekintzak martxan jarri.**

---

### Ekintzak:

**2.1.- Langilegoari** I. Berdintasun Planaren lan ildoak, helburuak, ekintzak eta garapena **ezagutzera eman**.

**2.2.-Bastida Ikastolak interes talde** (guraso, Ikastolen Elkartea, entitate publikoak, hornitzaileak, kolaboradoreak...) kontsideratzen dituenen artean I. Berdintasun Plana ezagutzera eman.

**2.3.-Emakume eta gizonen arteko berdintasuna enpresaren harrera dokumentazioan** txertatu eta dokumenturik egongo ez balitz entitateak bere jardunean emakume eta gizonen berdintasunarekiko duen konpromisoa adierazten duen dokumentua edo prozedimendua bat sortu.

---

---

## Helburu zehatza 3

**Bastida Ikastolak emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa modu esplizituan adierazi, barnera zein kanpora begira.**

---

### Ekintzak:

**3.1.- Erakunde eta entitate desberdinetan** berdintasun gaien inguruan antolatzen diren ekimenetan parte hartu (Udala, Foru Aldundia, Emakunde, Ikastolen Elkarte, Hezkuntza saila...).

**3.2.-** Berdintasun eta berdintasun ezarekin zerikusia duten **egun berezietan** (martxoak 8, azaroak 25, maiatzak 17...) entitatearen konpromisoaren inguruko adierazpenak egin egun erabiltzen diren kanalak erabiliz edo eta berriak sortuz eta bertan ikas komunitatearen partaidetza sustatu.

---



## SENTSIBILIZAZIOA ETA FORMAZIOA

02

### HELBURU OROKORRA

Bastida Ikastolan diharduten langile guztiek emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasunaren inguruko kontzeptuak ezagutu, ulertu, barneratu eta transmititzeko gaitasuna izan dezaten beharrezko sentsibilizazio eta trebakuntza baliabideak eskaintzea.

### Helburu zehatza

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan trebakuntza eta sentsibilizatorako beharrezkoak diren baliabideak ezarri eta bermatzea.

### Ekintzak:

**4.1.-** Diagnostiko fasean langilegoak adierazitako trebakuntza beharren inguruko irizpideak jarraituz, berdintasun gaietarako **formakuntza programa** diseinatu:

- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun ezaren oinarria, genero rol eta estereotipoen eraikuntza
- Hizkuntza ez sexista
- Lan arriskuen prebentzioa genero ikuspegitik

**4.2.-** Hezkuntzak, eta bereziki **hezkidetzak**, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean duen izaera estrategikoa kontuan hartuz, eguneroko jardunean balore eta jarrera berdinezalea erakutsi eta transmititu dezan, langilegoa trebatu.

---

## Helburu zehatza 5

**Bastida Ikastolan eguneroko jardun eta antolaketari dagokionez, berau osatzen duten pertsonentzat onuragarriak izan daitezken berdintasun ekimenetan partaidetza bultzatu.**

---

### Ekintzak:

**5.1.-**Berdintasun esparruan beste **entitate edo erakundeek** (publikoak zein pribatuak) antolatutako jardunaldi, lan saio edo ekimenetan langilegoaren parte hartzea sustatu.

---

## KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ETA DENBORAREN ERABILERA | 03

### HELURU OROKORRA

Bastida Ikastolako langileek lana, familia eta bizitza pertsonala uztartu dezaten hartutako neurriak mantendu, etorkizunera begira sortu daitezken kontziliazio beharrak identifikatu eta hauei bide ematea beti ere jarrera erantzunkidea sustatuz.

### Helburu zehatza

Bastida Ikastolako langileek lana, familia eta bizitza pertsonala modu orekatuan uztartu dezaten neurriak mantentzea eta bermatzea.

### Ekintzak:

- 6.1.- Indarrean dauden **kontziliazio neurriak mantendu** eta irizpide objetiboetan oinarrituta etorkizunera begira egon daitezken beharretan oinarrituta adostu litezken **neurri berriak dokumentu batetan jaso**.
- 6.2.- Langilegoan neurriekiko duen ezagutza bermatzeko egun indarrean dauden **neurrien hedapena**.
- 6.3.- Kontziliazio mailan dauden beharrak eta hauei erantzuteko proposamenak **identifikatzeko datu bilketarako bitartekoak** jarri.
- 6.4.- Kontziliazio mailan identifikatutako proposamenak aztertu eta bideragarri diren heinean **sistematizatze**ko, orokortze **mekanismoak** ezartzea.

---

Helburu zehatza **7**

Erantzunkidetasunean oinarritutako enpresa-kultura eta kudeaketa eredua sustatu, honen barne zaintzari (arrazoi ezberdinak direla eta helduen zaintza edo adin txikikoen zaintza orokorrean) dagokion garrantzia eman eta sentsibilizazioaren bidez balioan jarri.

---

Ekintzak:

**7.1.-** Kontziliazio eskubidea modu parekidean bermatu dadin langilegoa **erantzunkidetasun eta zaintzaren garrantziaz sentsibilizatu.**

---

## LAN HAUTAKETA PROZESUA ETA PROMOZIOA

04

### HELURU OROKORRA

Bastida Ikastolan lan hautaketa zein promozio arloan sexu arrazoiengatik diskriminazioak ematen ez direla bermatzea.

### Helburu zehatza 8

Bastida Ikastolan egiten diren hautaketa zein promozio prozesuak emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunean egiten direla bermatzea.

### Ekintzak:

**8.1.-** Hautaketaz arduratzen den mahaiari bere lana genero ikuspegitik burutzeko beharrezko **prestakuntza** eskaini.

**8.2.-** Indarrean dagoen **hautaketa prozedimenduan**, honen izaera ez diskriminatorioa bermatze aldera jasotzen dituen **irizpideak aztertu** eta beharrezko **egokitzapenak eta hobekuntzak** egin.

**8.3.-** Hautaketa zein sustapen prozeduretan erabilitako **hizkuntza, irudi, ezarritako baldintza etab...**ek sexu arloko diskriminaziorik adierazten ez dutela ziurtatu.

**8.4.-** Indarrean dagoen **sustapen prozedimenduari**, honen izaera ez diskriminatorioa bermatze aldera jasotzen dituen **irizpideak aztertu** eta beharrezko **egokitzapenak eta hobekuntzak** egin.

## SOLDATA POLITIKA

05

### HELURU OROKORRA

Bastida Ikastolan soldata politika berdinzalea dela bermatzen jarraitzea eta honen gaineko gardentasuna bermatzea.

### Helburu zehatza

Langilegoak soldata politika ezagutu eta hau emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpideen arabera dela ziurtatzea.

### Ekintzak:

**9.1.-** Emakume eta gizonen arteko lan ordainean berdintasunerako **902/2020 Dekretuak** jasotzen dituen betebeharrak jarraitzeko baliabideak ezarri. **Soldata erregistroa eta ordainsarien auditoria.**

**9.2.-** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatze aldera enpresan dagoen **soldata politika berdinzalea** dela ziurtatzen jarraitzea.

\*) Lan batek beste baten balio bera izango du, baldin eta benetan esleitutako eginkizunen edo zereginen izaera, lan horretan aritzeko eskatzen diren hezkuntza-, lanbide- edo prestakuntza-baldintzak, egitearekin hertsiki lotutako faktoreak eta jarduera horiek benetan gauzatzen diren lan-baldintzak baliokideak badira. Langileen Estatutuaren 28.1 artikulua)

## HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

06

### HELBURU OROKORRA

Bastida Ikastolan langilegoaren partaidetza sustatu asmoz, berdintasun mailan hartutako neurri eta aurrera eramandako ekintzen inguruko etengabeko komunikazioa bermatzea.

### Helburu zehatza **10**

Bastida Ikastolako I. Berdintasun Plana eta bertan jasotzen diren lan ildo, helburu eta ekintza nagusiak ezagutzera emateko bitartekoak ezarri.

### Ekintzak:

**10.1.-** Entitatean I. Berdintasun Planaren **garapen, jarraipen eta ebaluazioaren** baitan ematen diren urratsen hedapenerako kanalak diseinatu, ezagutarazi, elikatu eta mantentzea.

## Helburu zehatza 11

**Emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunaren konpromiso eta sustapenean oinarritutako enpresa irudia sendotzea.**

### Ekintzak:

**11.1.-** Hizkuntza eta komunikazio ez sexistaren jarraibideak jaso eta langileen eguneroko jardunerako (barne zein kanpo komunikazioa) baliagarria izango den irizpide barne **gida(\*)** bat osatu eta hedatu.

**11.2.-**Entitatean barne zein kanpo komunikazioaz arduratzen diren pertsonen **formazioa** bermatzea, egiten diren komunikazioetan hizkuntza inklusiboa bermatuz.

## Helburu zehatza 12

**Bastida Ikastolan hizkuntza politikak berdintasun irizpidea duela bermatzea.**

**12.1-** Orain arte sortu eta erabilitako zein sortu litezkeen baliabideak erabilita, **hizkuntza politikan berdintasun irizpidea bermatzen** dela ziurtatzea.



HELBURU OROKORRA

Genero ikuspegia duten lan arriskuen prebentziorako politiken ezarpena, amatasuna, aitatasuna eta edoskitzea baino haratago.

Helburu zehatza  13

Bastida Ikastolan lan arriskuen prebentzioa genero ikuspegia duela bermatzea.

Ekintzak:

13.1.- Genero ikuspegitik eman daitezken **lan arriskuen inguruko analisia\*** burutu.

13.2.- Analisi honen **ondorioak** jasotzen dituen dokumentua osatu eta **langilego guztiari helarazi**, beharrezkoa den kasuetan bere aplikazioa bermatuz.

# LANEAN JAZARPEN SEXUAL ETA SEXISTAREN PREBENTZIOA

08

## HELURU OROKORRA

Lanean jazarpen sexual eta sexistaren prebentzioa eta eman litezken kasu eta egoerak antzeman eta gabetzeko neurriak hartzea.

## Helburu zehatza 14

Lanean jazarpen sexual eta sexista ez jasateko eskubidea aitortu eta edozein egoeratan entitateak erantzun irmoa emango duela bermatzea.

### Ekintzak:

**14.1.- Lan hitzarmenean** jasota dagoen jazarpen sexual eta sexistaren **protokoloa aztertu** eta hau entitatearen **errealitate eta jardunera** (aplikazio eremua, lan taldeko kideak...) **egokitu eta hobekuntzak** aplikatzeko irizpideak barneratu. Gidak:

- [https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/IgualdadEmpresas/docs/AcosoSexualRazonGenero/Protocolo\\_Acoso\\_Sexual\\_y\\_Por\\_Razon\\_De\\_Sexo\\_2021.pdf](https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/IgualdadEmpresas/docs/AcosoSexualRazonGenero/Protocolo_Acoso_Sexual_y_Por_Razon_De_Sexo_2021.pdf)
- [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias2/eu\\_emakunde/adjuntos/sexu\\_jazarpena\\_eta\\_sexuan\\_oinarritutako\\_jazarpena\\_protokoloa\\_eu.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/sexu_jazarpena_eta_sexuan_oinarritutako_jazarpena_protokoloa_eu.pdf)

**14.2.-**Langilegoari protokoloan aurreikusi eta ezarritakoa aurrera eraman daitekela ziurtatzeko, eta batez ere protokoloaren aplikazioan ardua duten pertsonen honen **kudeaketarako beharrezko prestakuntza** ematea.

**14.3.-** Langilegoak protokoloa ezagutu dezan honen **hedapena** egin, beharrezkoa den kasuetan aplikatuko dela bermatuz.

**14.4.-** Protokoloaren **ebaluazioa eta eguneratzea**, berme osoz indarrean mantentzen direla ziurtatuz. Horretarako urtero berrikusi eta beharrezkoak diren moldaketa eta egokitzapenak aplikatu.

## BEZEROAK ETA HORNITZAILEAK

09

### HELURU OROKORRA

Bezero, hornitzaile eta kolaboratzaileen artean Bastida Ikastolan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa indartu.

### Helburu zehatza 15

Bezeroekin dauden hartu emanetan eta eskaintzen den hezkuntza proiektu zein zerbitzuetan berdintasun printzipioa errespetatzen dela ziurtatu.

### Ekintzak:

**15.1.- Ikasleen familiei**, ikastolan eskaintzen den hezkuntza proiektuan zein zerbitzuetan emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunerako entitateak dituen irizpideak adierazi, ohikoak diren kanalen bidez.

### Helburu zehatza 16

Hornitzaile eta kolaboratzaileen aukeraketan berdintasun printzipioaren arabera egiten dela ziurtatu.

**16.1.-** Hornitzaile eta kolaboratzaileen aukeraketarako **berdintasun irizpideak** ezarri.

**16.2.-** Berdintasun irizpide horiek hornitzaile eta kolaboratzaileen artean **ezagutaraztea**.

---

I. BERDINTASUN PLANA

